AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

EUSKARA ZUBI METODOLOGIAREN BIDE ORRIA

KOMUNITATEEKIN
ELKARLANEAN EUSKARATIK
ZUBIAK ERAIKITZEKO
PROZESUA ETA BIDE-ORRIA

www.aiaraldekoeuskalgintza.eus

AURKIBIDEA

EDUKIAK

OINARRIA	03
ABIAPUNTUA	05
BALIABIDEEN DISEINUA	06
KOMUNITATEAREKIN LANKETA	07
EDUKIAK	08
AURKEZPENA	09
DIFUSIOA ETA BANAKETA	09
JARRAIPENA	10
ITXIERA	10

OINARRIA

BIDE-ORRIAREN OINARRIA EUSKARA ARDATZ

Bide-orri hau euskaratik abiatzen da, eta hori da bere ezaugarri nagusia. Ez da hizkuntza guztiak maila berean jartzen dituen esku-hartze neutro bat, ezta aniztasuna kudeatzeko tresna generikoa ere. Prozesu osoa euskararen inguruan eraikia dago, euskarari funtzio sozial aktiboa emanez.

Euskara hemen ez da baldintza eta ez da eskakizuna. Euskara da interes komuna, ongizaterako eta kohesiorako hizkuntza, komunitate desberdinen arteko elkargune posiblea. Hizkuntza gutxitua izanik, euskarak ez du nagusitasun-harremaniksortzen, eta horrek aukera ematen du harreman simetrikoagoak sortzeko.

Bide-orri honetan, hizkuntza-baliabideak —izan hiztegiak, ikus-entzunezko edukiak edo bestelako materialak— euskaratik sortzen dira eta euskarari begira daude. Beste hizkuntzek ez dute euskararen lekua ordezkatzen; alderantziz, euskarara hurbiltzeko bideak irekitzen dituzte. Bi norabideko zubia izanik, elkarrekiko interesetik sortzen da harremana, hartu-emana, komunitateen arteko konplizitatea bultzatuz.

Horregatik, prozesuaren helburua ez da itzulpena edo informazioa eskaintzea soilik, baizik eta: euskararekiko lehen harreman positiboa sortzea, euskararen presentzia normalizatzea eguneroko espazioetan eta komunitateekin elkarlanean euskararen inguruan konfiantza-sarea eraikitzea.

Euskara zubi-hizkuntza gisa ulertuta, ongizaterako elementua, bide-orriak aukera ematen du kulturartekotasuna norabide bakarreko integrazio-prozesu gisa ulertu gabe, baizik eta elkarrekikotasunean oinarritutako harreman gisa.

Horrek esan nahi du euskarak harrera-prozesuetan tokia duela, hezkuntza- eta komunitate-inguruneetan presentzia duela eta gizarte-kohesiorako tresna aktiboa izan daitekeela.

Bide-orri honen pausu guztiak —prestaketa, komunitatearekin lanketa, baliabideen sorrera, aurkezpena, difusioa eta jarraipena— euskaratik abiatuta eta euskarari begira diseinatuta daude. Euskarak ematen dio zentzua prozesuari, eta euskarak lotzen ditu ekintza guztiak.

Prozesuak berak nolabaiteko eduki afektiboa du, beste kultura eta hizkuntzekiko interesa adieraztetik, balioan jartzetik eta beste komunitateengana gure hizkuntza eramatetik abiatzen baita. Kasu gehienetan komunitate minorizatutik komunitate minorizatura jardungo dugula kontuan hartuta, arlo hori azpimarragarria eta indartsua izango da ekimenaren garapenean.

ABIAPUNTUA

PRESTAKETA ETA KOKAPENA

Prozesua martxan jarri aurretik, beharrezkoa da kokapen argi bat egitea. Ez da dena batera egin behar, ezta komunitate guztiekin aldi berean hasi ere. Komunitate bakoitzak bere ezaugarriak baititu eta horiek kontuan hartzea ezinbestekoa baita ibilbidea arrakastaz burutzeko.

Arituko garen lurraldea zedarritu eta bere ezaugarriak aztertu beharko ditugu lehendabizi: datu soziolinguistikoak, udalerri kopurua, eskualde barruko mugikortasuna, soziologia...

Ondoren, testuinguruaren irakurketa labur bat egiten da: zein komunitatek dute presentzia handiena, zein espaziotan sortzen diren harremanak (ikastetxeak, harrera zerbitzuak, elkarteak, espazio komunitarioak), eta non egon daitezkeen lehen hurbilketa egiteko aukerak. Zein komunitatera hurbildu lehenago edo zeintzuk aukeratu xede gisa erabaki beharko da beraz. Horretarako, irizpide ezberdinak erabili daitezke: komunitatearen kide kopurua, antolatua eta ikusgarritasuna duena, euskaldunokiko antzekotasunak dituztenak...

Aurretik izan diren esperientziak ezagutu, aditu eta arituen aholkuak kontuan hartu, bidea ibiltzeko erreferenteak eta konplizeak bilatu eta identifikatu. Kontsultatu adibidez Euskal Herriko Euskalgintza Kontseiluak antolatutako harrera jardunaldien inguruan bere webgunean jasotako material ugaria:

- Ongi Etorri Euskararen Mundura II. Harrera Jardunaldien kronikak eta bideoak - Euskalgintzaren Kontseilua
- Ongi Etorri Euskararen Mundura harrera jardunaldien kronikak eta bideoak - Euskalgintzaren Kontseilua

Fase honen helburua da lehentasunak finkatzea, markoa ezagutzea eta nondik hasi erabakitzea.

BALIABIDEEN DISEINUA

TRESNAK, EZ HELBURUAK

Bide-orri honetan, baliabideen diseinua ez da abiapuntua, baizik eta harremanak aktibatzeko bidea.

Sortu daitezkeen baliabideak askotarikoak izan daitezke:

- hiztegiak edo material linguistikoak,
- ikus-entzunezko edukiak,
- gida sinpleak edo baliabide praktikoak,
- eduki digitalak edo fisikoak.

Baliabidearen formak ez du prozesua baldintzatzen; prozesuak baldintzatzen du baliabidea. Horregatik, diseinua beti egingo da erabilera errealetan pentsatuta, eta komunitatearekin kontrastatzeko aukerarekin. Hasierako diseinua moldagarria izan beharko du, bidean aberastu eta osatzeko aukera izanik. Kontuan hartu behar da, harreman bide honetan behar berriak identifikatu daitezkeela eta baliabide osagarriak sortzeko aukera sortu.

KOMUNITATEAREKIN LANKETA

PROZESUAREN ERDIGUNEA

Bide-orri honen ardatz nagusia komunitatearekin egingo den lanketa da. Ez da aurkezpen bat egitea, baizik eta hurbilketa progresibo bat egitea. Garrantzitsua da horretarako hizkuntza komunitate horren oinarrizko ezagupen bat izateko aurrez dokumentatzea eta erreferente posibleak ezagutzea. Helburua zubiak eraikitzea dela kontuan izan behar da.

Lehen kontaktuak, ahal den neurrian, formatu informalean egiten dira: elkarrizketa, aurrez aurreko topaketa txikiak, espazio komunitarioetara hurbilketa. Entzutea da lehen pausoa, ez azalpena. Elkarlanerako bideak sortu behar dira, fruitu konkretuak sortuko dituen ibilbide bat marraztuz.

Harreman horietatik abiatuta, pixkanaka konfiantza-sarea eraikitzen da. Horrek aukera ematen du komunitatearen beharrak, interesak eta erritmoak ulertzeko, eta prozesua horren arabera moldatzeko.

Behin harremana martxan dagoenean, kanal irekia sortzen da komunitatearekin. Kanal hori mantentzen da denboran, eta ez da ixten aurkezpen batekin.

Gutxienez urtean behin egingo dira topaketak komunitatearekin, eta beharrezkoa denean, urtean bi topaketa ere egin ahal izango dira. Topaketa hauek entzuteko eta eraikitzeko espazioak dira, ez informazioa transmititzeko bakarrik. Horrez gain informazioa, beharrak esperientziak eta ideiak partekatzeko komunikazio kanalak sortu eta elikatu beharko dira.

EDUKIAK

IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA BESTE EDUKI BATZUK PROZESUAREN BARRUAN

Ikus-entzunezko edukiek funtzio garrantzitsua dute prozesu honetan, baina ez dira helburua. Tresna dira komunitatearekin harremana sendotzeko, identifikazioa errazteko, parte hartzea sustatzeko eta zabalkundea indartzeko.

Bideo-kapituluak, audioak edo bestelako formatuak erabil daitezke, betiere komunitatearen errealitatera egokituta. Eduki horiek baliagarriak dira bai aurkezpenetan, bai ondorengo jarraipenean, bai sare sozialetan eta webgunean zabaltzeko.

Garrantzitsua da eduki horiek prozesuaren parte izatea, ez aparteko pieza isolatuak.

AURKEZPENA

MUGARRIA, EZ AMAIERA

Aurkezpena prozesuaren une garrantzitsua da, baina ez amaiera-puntua. Aurkezpenak balio du egindako lana ikusgarri egin eta balioan jartzeko, komunitate desberdinak elkartzeko, eta euskararen rola zubi-hizkuntza gisa azpimarratzeko.

Aurkezpena komunitarioa izan daiteke, instituzionala edo biak uztartzen dituena, baina beti prozesuaren testuinguruan kokatua. Parte hartzen duten komunitateen kultura presente egon behar du eta elkar topaketarako espazio informal baterako aukera bermatu behar da baita.

DIFUSIOA ETA BANAKETA

HARREMANA ZABALTZEKO BIDEA

Difusioa eta banaketa ez dira azken urrats teknikoak, baizik eta harremanak zabaltzeko estrategiak. Egindako bideak eta harremanak jada fruituak eman dituen adierazgarri eta ekimen gehiago bideratzeko atea irekitzea.

Banaketa fisikoa egingo da espazio giltzarrietan, hala nola ikastetxeetan, HHIetan, euskaltegietan, udaletan, liburutegietan, turismo bulegoetan eta espazio komunitarioetan. Aldi berean, zabalkundea egingo da hedabideen bidez, sare sozialetan eta webgunean. Ikastetxeetan banatzerakoan aurre lanketa bat egitea interesgarria izan daiteke.

Helburua ez da baliabideak pilatzea, baizik eta erabilera sozialera eramatea eta elkarrizketak sortzea. Komunitate ezberdinak elkarrengana hurbiltzea euskara partekatzen duguna delarik.

JARRAIPENA

JARRAIPENA ETA BILAKAERA

Prozesua ez da amaitzen aurkezpenarekin edo banaketarekin. Harremanak mantentzea eta elikatzea funtsezkoa da.Erronka eta aliantza berriak sortuko dira bidean.

Horretarako, komunitateekin egindako topaketetan jasotzen diren ekarpenek aukera ematen dute prozesua egokitzeko, baliabideak berritzeko edo beste ekimen batzuk abiarazteko.

Bide-orri honek, beraz, bilakaera bat izango duen prozesu bat proposatzen du, ez aurrez itxitako ekintza-multzo bat.Malgutasuna ezaugarri izan beharko du sortzen diren behar, aukera eta egoerei erantzuteko.

ITXIERA

PROZESU BIZI BAT

Bide-orri hau ulertzeko gakoa hau da: ez da hiztegi bat, ez da bideo sorta bat, ez da kanpaina bat.

Harremanak eraikitzeko modua bat da, euskaratik abiatuta, komunitateekin elkarlanean, eta denboran iraungo duen sare bat sortzeko. Elkar ezagutzeko nahitik, euskara ongizaterako baliabidea den ziurtasunetik eta komunitatea josteko xedetik abiatzen den prozesua. Euskararen mundua zabaldu eta komunitatea trinkotuko duena, ezberdinen arteko harremanetik.

AIARALDEKO
EUSKALGINTZA KONTSEILUA

www.aiaraldekoeuskalgintza.eus

688 86 29 49 / 688 75 12 82

info@aiaraldekoeuskalgintza.eus

@aiaraldekoeuskalgintza

Etxegoien bidea, 8 | 01470 Amurrio (Araba)